

Erraustegirik ez, organikoaren birziklapena orain

2015 FEB 06

LASARTE-ORIA

IDAZKERITZA/ALKATETZA

Bada denbora hondakin organikoa biltzeko 5.edukiontzia jartzeko erabakia hartu zuela Udalbatzarak. EHBildu beti kritiko izan da hondakinak kudeatzeko eredu horrekin, ez baititu beste eredu batzuk bezain emaitza onak ematen. Hain zuzen, hor daude San Marko komunitateak eman berri dituen datuak. Hauetan, argi gelditzen da Oiartzun, Hernani eta Usurbil bezalako herrietan Urnietan edo Donostian baina birziklatze tasa handiagoak lortzen direla.

Alabaina, 5. edukiontziaaren kontra agertu bagara ere, beti esan izan dugu hobe dela eredu hori ezartzea, organikorik ez bereiztea baino eta honegatik ez diogu inoiz inongo trabarik jarri sistema hau herrian ezartzeari.

Eta horretantxe gaude momentu honetan, 2011ko urriko udalbatzak onartu zuen premiazkoa zela organikoaren birziklapenarekin hastea eta 5.edukiontziaarekin biltzea onartu zuen gehiengoz.

2012ko aurrekontuetan jada bazegoen diru partida berau ezartzeko eta 2013ko urtarrilean batzorde berezi bat sortu zen 5.edukiontzia ezartzeko, bertan Jesus Zaballos lehendakari izendatu zelarik. 2 urte pasa dira eta EHBilduk trabarik jarri gabe komisio horretan hartutako erabakiei bide eman die Udal Gobernuak.

2012an 5.edukiontzia ezartzeko 52.500€ aurrekontua aurreikusi zen eta 0€ gastatu ziren. 2013an ere 35.000€ eta berriro ere ez zen gasturik egin. Azkenik, 2014an 35.000€ko aurrekontua izan du eta (azaroran, azken orduan) Jesus Zaballos batzordeko lehendakariak bilketa kuboak erostea agindu du soilik 13.000 euroan. (guztira 2500 kubo, etxebizitzaren %33a)

EHBildurentzat lau urte hauetan ikusitako kudeaketa txarrak eta 5.edukiontzia ezartzeko patxada honek argi adierazten du EAJk eta PSOEek hondakin organikoaren bilketan ez dutela ezer aurreratu nahi eta ez daudela birziklatzearen alde.

Gainera, azken aste hauetako adierazpenek oraindik gure zalantza areagotu dute. Izan ere, hautatuak izanez geru erraustegia egingo dutela adierazi baitute Denis Itxaso (PSE) eta Markel Olanö (EAJ) Ahaldu Nagusirako hautagaiek eta horretarako noski birziklapen tasa baxuak behar dituzte, erretzeko zer edo zer izateko.

Lasarteoriatarrek zoritxarreko gara, erraustegiaren kearen itzal luzeak bete betean jotzen baikaitu berriro ere. Herritarren osasuna eta ongizatea kolokari jartzen dute erabaki hauek eta erraustegiari ateak ixteko eta birziklapen tasa altuagoak lortzeko. Udalbatzak onartutako bilketa eredu (5.edukiontzia) lehen-bailen ezartzeko exijitzen dugu.

Hori dela eta Udalbatza honi honako puntu hauek onartzea eskatzen diogu:

- 1.- 2011ko urriko udalbatzako erabakia betetzea eta bertan onartu zen material organikoa biltzeko 5.edukiontzia bidezko sistema ezartzea legegintzaldia bukatu aurretik.
- 2.- Sistema honen bidez gutxienez %60ko birziklapen tasa lortzea eta hala gertatuko ez balitz sistemaren birplanteamentu bat abiaraztea
- 3.- Erraustetak, Lasarte-oriako herritarren osasunean eragin kaltegarria izango luke eta birziklapenaren aurka doan hondakinaren tratamendu sistema da, eta beraz Udal honek ez eraitzeko eskatzen dio Aldundiari.

Lasarte-Oriako Bildu udal taldea

Lasarte-Oria, 2015eko otsailaren 5ean

